



Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoak ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasangarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena.

Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezela transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Metereologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da.

Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure "kultur paisaia" sortuz.



Baratzea otsailean

Otsailean gure baratzeetan zainzuria landatu genezake, izipoza emango digu, lekua behar duen arren, uzta oparoa eskainiko baitigu. Urte luzeko landarea da, beraz ongi pentsatu non landatu, urtero lurpean gorde eta berriro lurrazaleratzen baita. Eta ez baditugu moztzen, landare berria osatzen dute uda garaitik aurrera. Landatzeko lekuari dagokionean, zainzuriak lur harroa behar du (lur itxia eta lokaztia bada gaizki ibiliko da), eguzkia eta babesa. Zainzuriarentzat lurra gogotik prestatu behar da. Simaur zahar ugari bota, geroago karea edo sutako hautsa zabaldu. Eta azkenik erreka inguruetako lur edo hondarra gehitu edota silize harrobiren bateko hondarra. Otsailetik apirilera bitarte landatu daiteke.

Errenkada handi bat ireki, 35 zm-ko sakonerakoa. Oinarrian 5 zm lur beltza zabaldu. 50 zm-ko tartean lur tontortxoak egin. Tontorrean bertan zainzuri landarea jarri (sustrai multzoa izango dena) eta dena ongi estali lur harroarekin. Kimu berriak sortu ahala lur gehiago bota beharko zaio, ongi estalirik egoteko.

Udaberria iritsi baino lehen, iazko urtean jaso ditugun haziak ereiten hasteko garaian gaude. Nahiz eta oraindik giro epel edo berorik ez dagoen, hazia lurrari ongi itsatsiko zaio eta laster nabaritu du lehertu eta kimuak ematen hasteko lehen giro epela. Lehenik eta behin, haziak ura hartuko du, ondoren azala zatitu eta bertatik landarea ernaduko da. Hazia zabaltzen dugun edo ereiten dugun tokian lur gozoa jarri eta ongi zanpatu. Haziaren tamainak berak esango digu zenbateko sakoneran sartu dezakegun. Askotan, haziak baratzeko produktuenak soilik ereiten ditugu baina ez ahaztu baratze ingurua eta basoa ere.

Haziei gagozkiolarik, mundu zabaleko nekazariak, tartean baserritarrak, milaka urte luzeetan zehar hazien aukeraketa, egokitze, eta zaintza lanak egin dituzte, jakinduria hau generazioz generazio transmitituz, kultur ondare gisara. Nekazari haziak ondare unibertsalaren tokian tokiko adierazpenak dira, haziak berak, naturaren magia eta kultur ezagutza bakarrean biltzen dituelarik. Nekazari herriek beren lan eta ezagutzarekin, lurrarekin bizitzen ikasi zuten, honen atzean dagoen aniztasun ekologiko eta kulturala argitaratuz.

Gaur ordea, hazien inguruko manipulazioen ondorioz, nekazariak beraien haziarekin jardutea zail dute, laborategietan genetikoki manipulatu diren haziakiko menpekotasuna sorrarazi baitute agroindustria eta agrokimiko multinazional handiek. Eszenario berri honetan, haziak ez dira lurra lantzen duten pertsonenak, jada ez dira eskutik eskura pasatzen, enpresa handien zerbitzura lan egiten duten teknikarien zaintzapean daude. Horregatik, gure haziak baditugu ongi zaindu, erein eta eskutik eskura zabaldu.





Ingurunea

Lehen izerdi kolpe garrantzitsua aprobetxatuz, txertaketak egin ditzazkegu. Igartubeiti baserrian, sagarrondoaren txertaketa hartuko dugu adibide gisa. Txertaketaren bidez bi landare ezberdin elkarrekin uztartuko ditugu, ondoren zuhaitz edo zuhaixka bat bilakatuko dena. Bi zati ezberdin behar dira: mentuoina edo patroia, oinarri bezala erabiliko duguna, eta sustraien bidez lurretik elikagaiak hartuko dituen. Eta txertoa, mentuoinari itsatsiko diogun aldaxka edo kimua, zeinetan elikagai eta izerdia hosto, lore eta sagar bilakatuko den. Mentuoina, hazitik etorri den sagarrondo landarea da, metro bete inguru edo hazi dena. Ez dakigunez zein sagarrondo mota den, egingo duguna honako hau izango da: batetik, sagarrondo hau enborretik moztuko dugu. Eta bestetik, sagastian dugun sagarrondo barietate jakin batetik, eman berri duen aldaxka edo kimu berri bat moztu eta mentuoinetan txertatuko dugu. Bi landare zatien izerdiak elkar nahastu behar dira, txertaketa ondo atera dadin. Izerdia azalaren azpian dagoenez, azala altxatu beharko diegu, elkarri izerdia eman eta hartzeko moduan egon daitezten. Honela, mentuoinetan zauri txiki bat irekiko dugu enborrean, eta bertan txertatuko dugu adar/kimu berria. Zauria ondo sendatu behar da, eta horretarako erretxina eman behar zaio eta bi zatiak ongi uztartu arte lotu egingo dugu, eta babesean eduki. Mentuoin batean txerto bat edo bi jarri daitezke. Honela, etorriko den zuhaitz berriak kimua kendu diogun zuhaitz horren fruitu berbera emango digu. Helburu hori baita, nahi dugun barietate jakin bateko sagarrondoa lortzea. Bestalde, zenbait fruta arbolen inausketak egiten hasteko garaia da, beti ere hilbeheran, esaterako goiz mugituko diren zuhaitzenak (gereziondoa, udareondoa...)



**ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO
BARATZE EKOLOGIKORA**